



**“ZAISA I” ETA “ZAISA III” EREMUETAN KAMIOIEN
APARKALEKUETARA SARTZEKO KONTROL ZERBITZUAREN
KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO
KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA
(23. Kategoria. Ikerketa eta Segurtasun zerbitzuak. Erreferentzia zk. CPV
79700000-1-tik 79723000-8-ra. Erreferentzia zk. CPA-2008 (Europar
Legebiltzarraren eta 2008ko apirilaren 23ko Kontseiluaren 451/2008 zenbakiko
Araudia (EB): 80. 10. 1**

A.- XEDEA:

Plegu honen xedea da, ZAISA I eta ZAISA III eremuetan dauden kamioientzako aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzuak kontratatzekeo prozedura arautuko duten arau eta jarraibide ekonomiko-administratiboak zehaztea, Plegu honetako "Zehaztapen Teknikoak" izeneko III. Eranskinean adierazten diren aurrekontu eta zehaztapen teknikoak kontuan hartuz.

B.- ESLEITZEKO MODUA:

Prozedura irekiaren bidez esleituko da kontratua, ekonomikoki abantailarik handiena ematen duen eskaintza hautatuko da, “N” letran zehaztutako balorazio-irizpide batzuk kontuan hartuz.

C.- ZERBITZUA BURUTZEKO EPEA:

Hiru urtekoa izango da plegu honek hizpide duen zerbitzuaren iraupena, eta urte batez luzatu daiteke, gehienez ere lau urteko kontratua osatu arte.

D.- LIZITAZIOAREN GEHIENEZKO AURREKONTUA:

Aurreikusitako kontratuaren balioa (4 urte) 835.680 eurokoa da, gehi une bakoitzari dagokion BEZa.

Kontratuaren aurrekontua eta lizitazio mota 626.760 euroko kopurura iristen da (BEZ kontuan hartu gabe)

E.- PREZIOEN BERRIKUSPENA:

Dagokion kontratua izenpetzen den egunetik kontatzen hasita urtebeteko epea igaro eta gero, prezio horiek urtero berrikusiko dira eta emendatu edo gutxitu egingo dira, Estatistiken Institutu Nazionalak edo, hala dagokionean, hura ordezkatzeko duen Erakundeak argitara emandako Euskadiko Kontsumorako Prezioen Indizeak eguneratze-dataren aurreko hamabi hilabeteko epean izandako gorabehera aplikatuz aurreko urteko prezioei.

F.- PREZIOAREN ORDAINKETA:



Hogeita hamar egunetan hileko fakturak jasotzen direnetik kontaktzen hasita.
Enpresa kontratistak dagokion hilabetearen hurrengo hilabeteko lehen hamabost egunetan igorriko ditu hileroko fakturak.

G.- PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA:

Hamabost (15) egun kontratuaren iragarkia “Sociedad Promotora de la Zona Aduanera de Irun, S.A.” elkartearen (aurrerantzean ZAISA) kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita.

H.- PROPOSAMENA AURKEZTEKO TOKIA:

ZAISAREN bulegoetan, Euskadi plazako 8. zenbakian, 7. solairua, eskuina, 20305 Irun (Gipuzkoa)

I.- ZERBITZUA BURUTZEKO TOKIA:

Irungo Behobia auzoko ZAISA I eta ZAISA III eremuetan dauden kamioientzako aparkalekuetan.

J.- BERMEAK:

Behin-behinekoa: Lizitazioaren aurrekontuaren ehuneko hiruaren (% 3) zenbatekoa bankuko abalaren bidez, BEZ kontuan hartu gabe, hau da, 18.802,80 €.

Behin betikoa:

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren ehuneko bostaren (% 5) zenbatekoa bankuko abalaren edo kauzio-aseguruaren bidez, BEZ kontuan hartu gabe.

K.- ASEGURUA:

Erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du kontratatuta esleipendunak kontratuaren iraunaldian zehar, gutxienez 120.000 euroko estaldurarekin ezbehar bakoitzeko, kontrataturiko segurtasun zerbitzua burutzetik etor litezkeen erantzukizunak estali ahal izateko.

Esleipendunaren kontura eta kargura ordainduko dira aipatu aseguruaren primak, baita ezbeharren zenbatekoa ere, aseguru polizan finkatutako mugak gainditu litzakeen kopuruan, horrelakorik gertatuz gero.

Kontratuaren iraunaldian zehar ZAISAK esleipendunari eskatu ahal izango dio polizak erakuts diezazkiola, baita kontratatutako primak ordaindu dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak ere.



L.- ZIGORRAK:

- A) Pleguan zehaztutako oso arau-hauste larriak 6.000 € bitarteko isunekin zigortuko dira.
- B) Pleguan zehaztutako arau-hauste larriak 3.000 € bitarteko isunekin zigortuko dira.
- C) Pleguan zehaztutako arau-hauste arinak 300 € bitarteko isunekin zigortuko dira.

Oso arau-hauste larriak gertatuz gero, ZAISAk erabaki dezake dagokion zigorra ezartzea edo kontratuari amaiera ematea.

M.- KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA:

<u>TALDEA</u>	<u>AZPITALDEA</u>	<u>MAILA</u>
L	06	B

N.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

AUTOMATIKOKI APLIKATZEKOAK.-

- Eskaintza ekonomikoa (Zerbitzuaren kostua orduko) **80 puntu** arte
Puntuatzeko metodoa, atal bakoitzerako (prezioa/ordua) honakoa izango da:
 $V_o = (V_{im}/V_{io}) \times P$
Non V_o = Delako eskaintzaren balorazioa den.
 V_{im} = Eskaintzako guztien zenbateko txikiena den (V_{io} txikiena)
 V_{io} = Dagokion eskaintzaren zenbatekoa den (erreferentziazko prezioak)
 P = Ponderazio koefizientea den, ondorengo taularen arabera:

<u>LANAK</u>	<u>Ponderazioa</u>
<i>Eguneko lan orduaren prezioa</i>	<i>25 puntu.</i>
<i>Gaueko lan orduaren prezioa</i>	<i>20 puntu.</i>
<i>Eguneko lan orduaren prezioa asteburu eta jai egunetan</i>	<i>20 puntu.</i>
<i>Gaueko lan orduaren prezioa asteburu eta jai egunetan</i>	<i>15 puntu.</i>
	<i>-----</i>
<i>Puntuak guztira</i>	<i>80 puntu.</i>

BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKOAK.-

- Lan plangintza eta langileen zerrenda **20 puntu** arte
Aintzat hartuko da lan plangintza, kontrolatzaileek burura eramane beharreko zereginak zehaztuz.



Neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo litekeen proposamen bat identifikatzen denean, berau aurkeztu duen lizitatuzaileari entzungo zaio eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan eta baldintzak zehaztu ditzan.

Ondorio horiei begira, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat joko da aurkeztutako eskaintzen batez bestekorik gora edo behera ehuneko 20 unitateko aldea erakusten duena.

O.- ESKANTZEN IREKIERA:

ZAISAren kontratatuzailearen profilean ezagutaraziko dira.



“ZAISA I” ETA “ZAISA III” EREMUETAN KAMIOIENTZAKO APARKALEKUETARA SARTZEKO KONTROL ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA.

I.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA:

I.1.- Zerbitzuen kontratu hau zuzenbide pribatuari lotuta dago ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari dagokienean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren (aurrerantzean SPKL) 20. artikuluan xedaturikoari jarraiki, eta erregulazio harmonizatuari lotu gabe dagoen kontratu bat da, aipatu SPKL legearen 13.1 artikuluan esaten denari kasu eginez.

I.2.- Ondoko arau hauek arautzen dute kontratu hau:

- Klausula Administratibo Partikularren Pleguak (aurrerantzean KAPP edo Plegua) eta bere karatulako zehaztapenek, hala nola esleipendunarekin formalizatuko den kontratuan jasotzen diren Baldintza Teknikoen Pleguek eta Baldintzek.
- SPKLak.
- Azkenik, Zuzenbide Pribatuko Arauak aplikatuko dira kontratazioari, gauzatzearen ondorioei eta kontratuaren amaierari dagozkion auziak ebazteko; SPKLan araututako Zerbitzuen Kontraturako Erregimen Juridikoa aplikatu behar ez denean.

I.3.- Kontratuaren esleipendunak behartuta egongo dira, zerbitzua betetzerakoan enplegatuko dituzten langileekin, indarrean dagoen Lan eta Gizarte Segurantzako Legeria betetzera.

II.- KONTRATUAREN XEDEA:

II.1.- Kontratuaren xedea izango da Plegu honetako Karatulako “A” atalean deskribatutako zerbitzua ematea.

II.2.- Kontratuaren iraunaldian zehar segurtasun zerbitzu bereziak egitea eskatu ahal izango zaio enpresa kontratistari, eta zerbitzu horiek eman egin beharko ditu nahitaez. Halakoetan haren eskaintzan jasotako prezio-unitateak aplikatuko dira.

II.3.- Aurreikusi gabeko kontuei arreta eman ahal izateko ZAISAk kontratua aldatu behar badu (ekipoak emendatuz, murriztuz, desagerraraziz edo ordezkatzuz), behar bezala justifikatuko du ondorio horietarako egingo den espedientean. Espedientea SPKLaren 108. artikulua aurreikusitakoaren arabera tramitatuko da, eta bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat, kalte-ordainak jasotzeko eskaera egiteko eskubiderik izango ez duela.



III.- LIZITAZIOAREN AURREKONTU ZENBATETSIA. KONTRATUREN BALIO ZENBATETSIA:

Gehienez ere 626.760 €koa da (gehi BEZa) kontratuaren aurrekontua. Lizitzaileek kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute beren eskaintzetan, baina betiere kopuru zehatz eta jakin bat zehaztuz.

Lizitzaileek beren eskaintzetan prezioa/orduko zehaztu beharko dute eta egun indarrean dagoen Hitzarmen Kolektibo aplikagarrian ezarrita dauden kontzeptu guztiak jasoko ditu (soldata eta gizarte segurantzaz, oporrak, aparteko ordainsariak, absentismoa, aseguruak, etab.) ondoren adierazten den xehetasunaren arabera eta Plegu honetako II. Eranskineko "Kontratazio Eredua" agiriko edukiaren arabera.

Kamioientzako aparkalekua kontrolatzeko zerbitzuaren prezioa:

Eguneko lan ordua, lanegunetan.

Gaueko lan ordua, lanegunetan.

Eguneko lan orduaasteburu eta jai egunetan.

Gaueko lan ordua asteburu eta jai egunetan.

SPKLren 88. artikulua edukia aplikatu eta Plegu honetako karatularen "D" atalean adierazitako kopuruan zehaztu da kontratuaren balio zenbatetsiaren guztizkoa.

IV.- ORDAINTZEKO MODUA:

Kontratuaren prezioa Plegu honetako karatularen "F" atalean adierazita dagoen moduan ordainduko da.

V.- PREZIOAK BERRIKUSTEA:

Urtero berrikusiko da kontratu honen xedea den zerbitzuaren prezioa, Plegu honetako karatularen "E" atalean zehaztuta dagoen moduan.

VI.- KONTRATUAREN IRAUNALDIA:

Plegu honek aipatzen duen zerbitzuaren iraunaldia hiru urtekoa izango da, kontratu hau sinatzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Kontratuko aldeak ados jarrita, kontratua amaitzen denean luzatu ahal izango da berariaz, gehienez jota beste urtebetez, beraz, guztira lau urte osatu arte, SPKL legearen 303 artikuluan zehazten denari jarraiki.



VII.- ESLEITZEKO MODUA:

Prozedura irekiaren bidez esleituko da kontratua, SPKLaren 157. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoen arabera.

Plegu honetako Karatularen “N” atalean identifikatutako irizpideak aintzat hartuta erabakiko da zein den eskaintza ekonomikorik onena, eta irizpide horietako bakoitzari begira finkatutako balorazioaren arabera xedatuko da berau.

VIII.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

VIII.1.- Kontratatistak eskubidea izango du prezioa kobratzeko.

VIII.2.- Kontratatistak honako betebeharrak dituzte:

- Kontratuaren xede den zerbitzua burutuko du, pertsonalki bete ere, kontratuan ezarritako klausulak kontuan hartuz eta ZAISAko Gerentearen aginduak betez.
- Behin betiko bermea ordainduko du ezarritako epean.
- Kontratua ere epe barruan formalizatuko du.
- Kontratuaren iraunaldi osoan mantendu beharko du kontratatze gaitasuna, eta ZAISAri hamabost eguneko epean emango dio etor litezkeen bateraezintasunen eta ezintasunen berri.
- Kontratu honetako lizitazioen ondorioz sortzen diren gastu guztiak ordainduko ditu. Azalpen gisa eta izaera ez mugatzailearekin, esaterako, Aldizkari Ofizialetan eta prentsan iragarkiak jartzeagatik, fidantzak osatzeagatik eta bere kasuan kontratua eskritura publikoan formalizatzeagatik sortzen direnak adieraziko dira.
- Lan Legeria, Gizarte Segurantzza, Hitzarmen Kolektibo, laneko arriskuen prebentzioaren alorretan dauden xedapen guztiak beteko ditu, baita zerga alorreko xedapenak ere. Horrenbestez, ZAISAk ez du inolako ardurarik izango xedapen horiek ez betetzetik etor litezkeen erantzukizunetan.
- Emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izango da, baita ZAISArentzat edo hirugarren pertsonentzat sor daitezkeen ondorioena ere, aipatu zerbitzua betetzerakoan gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo konklusio okerren ondorioz.
- Nola ZAISAri hala hirugarrenengoei eragindako kalteak ordainduko ditu, kalte horiek burura eramandako zerbitzuen ondorio baldin badira.
- Indarrean edukiko du Plegu honetako Karatularen “K” atalean adierazitako aseguru-poliza.
- ZAISAko gerenteak eskaera egiten dion egunetik kontaktzen hasita gehienez ere bost egunetan ordezkaturiko ditu langileak, langile horiek ez badute beren zeregina behar bezala eta modu eraginkorrean betetzen, lan horiek burura eramateko gaitasunik ez badute edo beren zerbitzua egokiro betetzen ez badute.



IX.- ZAISAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

IX.1.- Kontratua ikuskatzea ZAISAren egitekoa izango da bere Gerentziaren bitartez, eta honek beharrezko aginduak eman ahal izango dizkio kontratistari kontratua behar bezala bete dezan, kontratuko klausuletan oinarrituz.

IX.2.- ZAISA behartuta egongo da hitzartutako zenbatekoak ordaintzera Plegu honetako III. Klausulan xedaturikoari jarraiki.

X.- BERMEAK:

X.- BERMEAK:

SPKLaren I. Liburuko IV. Tituluan zehaztuta dago bermeen erregimena.

X.1.- BEHIN-BEHINEKOA:

X.1.1.- Kontratuaren esleipendunak behin-behineko bermea osatu beharko du banketxeko abal baten bitartez edo lehen mailako kreditu baten bitartez, lehen eskari edo errekerimenduan, zatiketa, eskusio eta agindu eskubideak kontuan hartu gabe, lizitazioaren aurrekontu zenbatetsiaren ehuneko hiruko (% 3) zenbatekoan, hau da: 18.802,80 €, kontratua formalizatu arte eskaintzari eutsiko diola bermatzeko.

X.1.2.- Behin-behineko berme hori itzuli egingo zaio lizitatuileari kontratua esleitu eta berehala, baina esleipendunari ez zaio bermea itzuliko behin betiko bermea osatu dezan arte.

X.2.- BEHIN BETIKOA:

X.2.1.- Kontratuaren esleipendunak esleipen prezioaren %5aren arabeko behin betiko bermea jarri beharko du kausio-aseguru baten edo banku edo lehen mailako kreditu erakunde baten abalaren bidez, lehen aldiz eskatzean, zatiketa, eskusio eta ordena eskubideak kanpo utzita, Plegu honetatik eta formalizatuko den kontratutik eratorritako obligazioak beteko dituela ziurtatzeko.

X.2.2.- Behin betiko berme hau osatzeko epea 10 lanegunekoa izango da, ZAISAk bermea osatzeko eskaera egiten duen egunetik kontatzen hasita.

X.2.3.- Esleipendunak, jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du kontratua amaitutakoan eta, hala behar badu, bermearen epea bukatu denean. Eskaria idatziz eta modu espresean egin beharko da, eta itzulketarako ebazpena egin beharko du ZAISAko Administrazio Kontseiluak.

XI.- LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA:

ZAISAren kontratatzailearen profilean egingo da lizitazioaren publizitatea.



XII.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA:

XII.1.- Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridikoek, espainiar nahiz atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala baldin badituzte, eta kontratatzeko debekuen kasuetan murgilduta ez badaude.

XII.2.- Era berean, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte aldi baterako osa daitezkeen enpresaburu-elkarteek, SPKL legearen 59. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

Elkartea osatzen duten enpresaburu bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna, eta agiri pribatu batean adierazi beharko ditu dokumentazioa sinatzen duten enpresaburuen izenak eta gorabeherak; horietako bakoitzaren parte hartzea eta, kontratua irauten duen bitartean ZAISAren aurrean ordezkari izateko erabango duen pertsona zein den.

Era berean, Aldi Baterako Enpresa Elkarte (ABEE) osatzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute, aipatu elkarte kontratuaren esleipendun gertatzen bada.

Agiri hori ABEE elkarte osatzen duten enpresetako ordezkari bakoitzak sinatu beharko du.

XII.3.- Enpresaburu bakar batek ere ezingo du ABEE gisa proposamenik sinatu beste enpresariekin batera, banaka egingo da.

Printzipio hau ez betetzeak ekarriko du berak aurkeztutako proposamen guztiak ez onartzea, eta SPKL legearen 145.3 artikuluan adierazten dena aplikatuko zaio.

XII.4.- Lizitzaileak proposamenak aurkeztu izanak adierazten du bere aldetik onartzen dituela Plegu honetako eta kontratuko gainerako agiritako klausulak, baita aurkeztutako datu guztien zehaztasuna adieraziz aitorten arduratsua eta kontratu honen xede den zerbitzua burutzeko exijitzen zaizkion baldintza guzti-guztiak betetzen dituela azaldu ere.

XII.5.- Lizitzaileek formulatzen duten proposamen ekonomikoan eta indarrean dauden xedapenen arabera, beti ulertuko da aplikagarri diren zerga guztiak sartuak direla BEZa izan ezik, baina BEZa sail independente gisa azalduko da, berex.

XII.6.- Enpresa atzerritarrek dokumentazioa modu ofizialean gaztelaniara edo, hala behar badu, euskarara itzulia aurkeztuko dute.

XII.7.- Lizitzaileek honako era honetan aurkeztuko dituzte beren eskaintzak:

- Plegu honetako karatulako “G” letran adierazitako datan.
- Bai Irungo Euskadi Plazako 8. zenbakian, 7. solairuan, eskuinean, dauden ZAISAko bulegoetan, lanegunetan eta jendearentzat zabalik dagoen ordutegian, bai posta



ziurtatuaren bitartez, helbide honetara zuzenduta: Euskadi plaza, 8. zk., 7. solairua, esk. (20305 Irun), eta bidaltzaileak egiaztatu beharko du bidalketa zein datatan egin duen Posta Bulegoaren bitartez eta kontratazio organoari adierazi beharko dio eskaintza bidalita duela 943633877 fax zenbakiaren bitartez, edo zaisa@zaisa.com posta elektronikoaren bitartez, egun berean. Bi baldintza horiek bete gabe proposamena ez da onartuko, proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, aipatu datatik hamar egun natural igarotzen bada eta proposamenik jaso ez bada, berori ez da inolaz ere onartuko.

- Gaztelaniaz eta euskaraz idatzita egongo da.
- Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatu ahal izateko, Baldintza Pleguak ZAISAren Bulegoetan (Irunen, Euskadi Plazako 8. zenbakian, 7. solairuan, eskuina) aztertu ahal izango dituzte interesatuek, eta baita Elkarte horren kontratatzailearen profilean ere.

XIII.- PROPOSAMENEN EDUKIA:

XIII.1.- Lizitatzzaileek hiru gutun-azal itxi batera aurkeztuko dituzte eta lizitatzzaileak edo bere izenean diharduen pertsonak sinatuta joango dira. Aipatu gutun-azal bakoitzaren kanpoko aldean lizitatzzailearen izen-abizenak adierazitako dira edo enpresa lizitatzzailearen izen soziala, baita plegu honetako karatulako “A” atalean aipatzen den kontratuaren xedea ere. Era berean, komunikazioetarako posta elektronikoaren helbide bat adieraziko da.

XIII.2.- Hiru gutun-azalak ZAISAko bulegoetan aurkeztuko dira, Irungo Euskadi plazako 8. zenbakian. Erakunde honek dagokion egiaztagiria emango dio lizitatzzaileari. Plegu honetako karatulako “G” atalean eta ZAISAren kontratatzailearen profilean adierazten den egunean eta orduan amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

XIII.3.- Gutun-azalaren barnean, aparteko orri batean, bere edukia adieraziko da zenbakiekin. “A” gutun-azalean joango dira ondorengo XIII. 5 klausulan deskribatzen diren dokumentu orokorrak, “B” gutun-azalean proposamen ekonomikoa eta “C” gutun-azalean proposamen teknikoa.

XIII.4.- Proposamen bat aurkezten bada ezingo da erretiratu, justifikatutako arrazoiak daudenean eta ZAISAk onartzen dituen izan ezik. Proposamen bat justifikatu gabe erretiratzen bada, lizitatzzaileak galdu egingo du aurrez jarritako behin-behineko bermea.

XIII.5.- “A” gutun-azala: Dokumentazio orokorra.

XIII.5.1.- Honako dokumentu hauek aurkeztuko dituzte lizitatzzaileek “A” gutun-azalean:

- Proposamena aurkezten duenaren eta beste baten izenean jarduten dutenen N.A.N. edo agiri baliokidea.



- Zerbitzuen kontratistaren klasifikazioa:

<u>TALDEA</u>	<u>AZPITALDEA</u>	<u>MAILA</u>
L	06	B

- Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, osaera-eskrituraren bidez edo, hala behar duenean, aldaketa-eskrituraren bitartez egiaztatuko da, eta Merkataritzako Erregistroan inskribatua egongo da.
- Kontratatzeko nahikoa ahalmen ematen duen ahala, aurreko atalean ezarrita dagoena kontuan hartuz, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko moduari dagokionez.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez dagoela ziurtatzen duen ardurapeko adierazpena (I. Eranskinaren arabera). Era berean, onartu egingo dira kontratatzeke debekuen inongo arrazoitan sartu gabe dagoela dioten aitortpenak ere, Notarioaren edo Aginte administratiboaren aurrean eginak baldin badira.

XIII.5.3.- Lizitatzailerak era honetan aurkeztu beharko du exijitutako dokumentazioa:

Notaritzakoa bada, Legeak eta Notaritzako Arautegiak legeztatze eta legitimatze alorrean ezarritako baldintzetara egokitua.

Administratiboa bada, jatorrizkoa edo jatorrizkoaren kopia edo fotokopia, behar bezala eskuetsia.

XIII.6.- “B” gutun-azala. Proposamen ekonomikoa:

XIII.6.1.- Proposamen ereduak:

“B” gutun-azalean proposamen ekonomikoa sartuko da Plegu honetako II. Eranskina betez. (Edonola ere prezioak ezingo du lizitazioaren aurrekontuko zenbatekoa gainditu).

BEZ zergari dagokion zenbatekoa, edozein kasutan, sail independente bezala azalduko da, berex.

Aurkeztu den eskaintzak, dagozkion zerga eta gastu guztiak, BEZa izan ezik, sartuta dauzkala ulertuko da, adibidez, aseguruak, arantzelak, baimenak, udal lizentziak eta era guztietako baimenak, zerbitzua burutzeko beharrezkoak izan daitezkeenak.

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatuta aurkeztuko da eta ez da onartuko hutsune, akats edo zirriborroak dituztenak eskaintzaren edukia argi eta garbi ezagutzeko zailtasunak eragiten badituzte.

XIII.7.- “C” gutun-azala. Proposamen teknikoa:



Deskripzio izaerako memoria honetan zehaztuko dira Segurtasun Plana eta lana burura eramateko plangintza eta kontratatutako langileek egin beharreko betekizunak, baldintza teknikoen Pleguan zehaztutakoarekin bat etorririk.

XIV.- KONTRATAZIO MAHAIA. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.

XIV.- KONTRATAZIO MAHAIA. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA.

XIV.1.- Kontratazio mahaia:

Hauek osatuko dute ZAISAko kontratazio mahaia:

- Administrazio Kontseiluko Presidenteak edo hark aukeratutako Kontseilariak.
- Administrazio Kontseiluak izendatutako Kontseilariak.
- Zuzendari Gerenteak
- Kontseiluko Abokatu-Aholkulariak.

Era berean, aipatu Elkartek izendatutako Teknikari bat izan daiteke Kontratazio mahaikide, haren parte hartzea ezinbestekotzat jotzen bada edo besterik gabe komenigarritzat, Kontratazio organoaren iritziz.

XIV.2.- Eskaintzak jendaurrean irekitzea:

Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren A gutun-azalean (Dokumentazio Orokorra) aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Mahaiak akats materialak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru laneguneko epea eman ahal izango du, eskaintzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako eskakizunak faxez edo posta elektronikoz egingo dira ahal bada, enpresak lizitazioan aurkeztu duen dokumentazioan aipatutako zenbaki edo helbidera zuzenduta.

Kontratazio Mahaiak, “C” gutun-azalak (Proposamen teknikoa) irekiko ditu Elkartearen Bulegoetan, jendaurreko ekitaldian, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo asteko ostiralean, 10:00etan. Egun hori bulegoetako egutegiaren arabera lan-eguna ez balitz, irekitzeko ekitaldia hurrengo lanegunera atzeratuko litzateke.

Hasierako deialdi hau mantentzea nahiz izan ditzakeen aldaketak argitara emango dira Elkartearen kontratatzailearen profilean, egokitzen hartzen den beste edozein modutan ere jakinarazi ahal izango den arren.

“C” gutun-azalean jasotako atalei buruzko eskaintza baloratu ondoren, eskaintzen bigarren gutun-azala, “B” gutun-azala (Proposamen ekonomikoa), irekiko du Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi honetarako deialdia ere kontratatzailearen profilean emango da argitara, egokitzen hartzen den beste edozein modutan ere jakinarazi ahal izango den arren.



XIV.3.- Esleitzeko oinarrizko irizpideak:

XIV.3.1.- ZAISA, lehiaketa eman gabe utzi ezean, behartuta egongo da ekonomikoki abantailarik gehien eskaintzen duen proposamenari kontratua esleitzera, Plegu honetako karatulako "N" atalean finkatutako balorazio irizpideak aintzat hartuta.

XIV.4.- Eskaintzak baztertzea:

Aurreko klausulan aipatutako dokumentuetako edozein ez aurkeztea edo aurreko ataletan adierazitakoa zehatz-mehatz ez betetzea eskaintza ez onartzeko arrazoi izango da.

XV.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Honako irizpide hauen arabera bideratuko da esleipena:

AUTOMATIKOKI APLIKATZEKOAK.-

- Eskaintza ekonomikoa (Zerbitzuaren kostua orduko)**80 puntu arte**
Puntuatzeko metodoa, atal bakoitzerako (prezioa/ordua) honakoa izango da:

$$Vo = (Vim/Vio) \times P$$

Non Vo = Delako eskaintzaren balorazioa den.

Vim = Eskaintzaren guztien zenbateko txikiena den (Vio txikiena)

Vio = Dagokion eskaintzaren zenbatekoa den (erreferentziazko prezioak)

P = Ponderazio koefizientea den, ondorengo taularen arabera:

<u>LANAK</u>	<u>Ponderazioa</u>
<i>Eguneko lan orduaren prezioa</i>	<i>25 puntu.</i>
<i>Gaueko lan orduaren prezioa</i>	<i>20 puntu.</i>
<i>Eguneko lan orduaren prezioa asteburu eta jai egunetan</i>	<i>20 puntu.</i>
<i>Gaueko lan orduaren prezioa asteburu eta jai egunetan</i>	<i>15 puntu.</i>

<i>Puntuak guztira</i>	<i>80 puntu.</i>

Neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo litekeen proposamen bat identifikatzen denean, berau aurkeztu duen lizitatzailari entzungo zaio eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan eta baldintzak zehaztu ditzan.

Ondorio horiei begira, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat joko da aurkeztutako eskaintzen batez bestekorik gora edo behera ehuneko 20 unitateko aldea erakusten duena.

BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKOAK.-



- Lan plangintza

..... **20 puntu arte**

ZAISAREN beharretara egokitutako berariazko segurtasun plan egokia, zerbitzuaren alderdiak aintzat hartuko dituen

- Zerbitzuaren plangintza
- Kontrol eta segurtasun zerbitzua betetzen dela kontrolatzeko eta gainbegiratzeko lana
- Jarduerari buruzko txostenak
- Zerbitzuaren egitekoen organigrama.
- Erabiltzaileen, instalazioko langileen eta herritarren sarreren kontrola.
- Legez kanpoko interferentzia ekintzen kudeaketa.
- Etengabeko hobekuntza

XVI.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.

1.- Kontrataziorako organoak gehienez ere bi hilabeteko epean esleituko du kontratua, proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasita.

2.- Administrazioak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamenik onuragarrienera esleitzeko, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposamenaren balio ekonomikoari kasu egin beharrik gabe, edo, bestela, lizitazioa esleitu gabe utz dezake, betiere erabakia esleipen-irizpideen arabera hartuz.

3.- ZAISAREN Kontratatzailearen profileen argitaratuko da kontratuaren esleipena.

4.- Esleipen proposamena erabaki ondoren, Kontratazio Mahaiak ekonomia mailan eskaintza egokiena aurkeztu duen lizitatzailerari eskatuko dio, hamar laneguneko epean, jakinarazpena jasotzen duen egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria aurkezteko, alderdi hori aurretik ez bada egiaztatu. Era berean, kontratatze gaitasuna egiaztatze eta kontratua aurrera eramateko erabili beharreko baliabideak benetan eskura dituela egiaztatze beste edozein dokumentu ere eskatu ahal izango dio kontratazio organoak.

Era berean, honako hauek egiaztatuko ditu:

- Bidezkoa den behin betiko bermea osatu duela egiaztatu behar du.
- Lizitazio eta esleipen iragarkietako gastuak ordaindu izana egiaztatuko du.
- Plegu honetako Karatulako "K" atalean aurreikusitako aseguruia kontratatu eta ordaindu izana egiaztatzen duen agiria.
- Eskaera hori ez bada zehaztutako epean betetzen, ulertuko da lizitatzailerak bere eskaintza erretiratu egin duela, eta kasu horretan dokumentazio berdina eskatuko dio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera.



5.- Behin betiko bermea jarri ondoren eta zehaztutako dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondoko bost laneguneko epean esleituko du kontratazioa.

6.- Arrazoitua izango da esleipena, lizitatzailari emango zaio horren berri eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean emango da argitara.

Esleipen hori formalizatzeko epea agertuko da jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean.

7.- Kontratuaren esleipena bi hilabeteko epean egingo da gehienez ere, proposamenak irekitzen diren egunaren hurrengotik aurrera kontatuta. Esleipen erabakia ez bada zehaztutako epean hartzen, eskaintza erretiratzeko eskubidea izango dute lizitatzailak.

XVII.- KONTRATUA FORMALIZATZEA:

XVII.1.- ZAISAk zentzu horretan deia egin eta gehienez ere bost egunera formalizatuko da kontratua.

XVII.2.- Dokumentu pribatuan formalizatuko da kontratua. Hala ere, eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du aldeetako edozeinek, eta kasu horretan eskatzen duenaren kontu eta kargura izango dira eskritura hori egiteak eragindako ordainsariak eta gastuak.

XVIII.3.- Kontratatari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ezin bada zehaztutako epean formalizatu, ZAISAk bereganatuta erabakiko da jarritako bermea, eta horrenbestez, haren hurrengo lizitatzailari esleitu ahal izango zaio kontratua, eskaintzen ordenaren arabera, esleipendun berriaren adostasunarekin betiere.

XVII.4.- Esleipendunaren kontura eta bere erantzukizunpean egongo dira kontratua formulatzetik sortzen diren gastuak eta zergak.

XVIII.- KONFIDENTZIALTASUNA:

SPKL legean gai honi buruz ezarritakoari kalterik egin gabe, ZAISA behartuta dago ez zabaltzera enpresaburuek emandako informazioa, hauek konfidentzial gisa aipatu badute, bereziki sekretu tekniko edo komertzialen ingurukoak eta eskaintzetan agertzen diren datu konfidentzialak.

Esleipendunak isilpean gorde beharko ditu kontratuaren xedearekin zerikusia duen edozein datu edo aurrerakin, publikoak edo agerikoak ez badira behintzat, eta kontratuaren ondorioz ezagutzen dituenak. Obligazio hau betetzen ez bada ZAISAk eskubidea edukiko du kontratatari kalte-ordainak erreklamatzeko ez betetze horren ondorioz jasandako kalteengatik. Kontratista behartuta dago, gainera, eskura ditzakeen datu edo informazioak, bere kasuan, izaera pertsonaleko datuak babesteko arautegian ezartzen dena kontuan hartuz, erabiltzera.



Lizitatuzaileak bere borondatez entregatzen ditu prozeduraren esparruan ZAISAri emandako dokumentazioan jasota egon daitezkeen datu pertsonalak, beharrezkoa balitz, datu horietan aipatzen diren hirugarren pertsonen baimena lortuta izango bailuke ZAISAri uzteko, atal honetan aurreikusten diren ondorioetarako. Lizitatuzaileak berariaz baimentzen du ematen dituen datu pertsonalak edo prozedura honekin lotuta sortzen diren datuak ZAISAren egon daitezkeen fitxategi automatizatueta sartzea, baita, hala behar duenean, erakunde honek aipatu datuen tratamendua egitea ere, egin daitekeen zerrenda mantendu, garatu eta kontrolatzeko.

ZAISAK, bere aldetik, eman ahal izango zaizkion izaera pertsonaleko datuen tratamenduan segurtasuna eta konfidentzialtasuna bultzatuko du, esparru horretan legez ezarrita dagoena bete behar izateaz gainera.

Lizitatuzaileak sartu, zuzendu, ezabatu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu ZAISAK Irungo Euskadi plazako 8. zenbakiko 7. solairuan, eskuinean, duen bulegoan.

XIX.- KONTRATUA UZTEA ETA AZPIKONTRATATZEA:

XIX.1.- Uztea:

Kontratistak ezingo dio kontratua inori utzi ZAISAK berariaz eta idatziz aurrez baimena ematen ez badu.

ZAISAK aurrez baimendu gabe kontratua uztea, kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da.

XIX.2.- Azpikontratazioa:

ZAISAK berariaz eta idatziz baimenduta baizik ezin izango dira kontratuaren prestazioak subrogatu, beti ere azpikontratuzaileak Plegu honetan adierazitako legezko baldintza guztiak betetzen baldin baditu, kontratatzeke debekua kasuren batean ez baldin badago, bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko eta profesionala egiaztatzen baldin badu eta PLEGU honetan zehaztutako bitarteko guztiak edukitzeko betebeharra betearazteko konpromisoa bere egiten baldin badu.

Azpikontratistak soilik enpresa kontratistaren aurrean ditu betekizunak, enpresa kontratista izango baita ZAISAren aurrean prestazioa eskaintzeko erantzukizuna bere egingo duena, Plegu honen eta sinatu beharreko kontratuan adierazitako baldintzen arabera.

XX.- SUBROGAZIOA LAN KONTRATUETAN:

Esleipendunak subrogatu eta aurreko esleipendunari dagozkion langileak hartuko ditu, esleipen-kontratua sinatu zen datatik ustiatzen diren instalazioetako zerbitzuetan ari direnak, aurreko esleipendunaren lan eta Gizarte Segurantzaren alorreko betebeharrak eta eskubide guztiak, pentsioen konpromisoak barne, berariazko araudian aurreikusitako baldintzetan eta, oro har,



aurreko esleipendunak gizarte babesaren alorrean kontratatu zitzakeen betebeharrak guztiekin, bereziki Klausula Administratiboaren Plegu honetako IV. eranskinean adierazten diren langileen lan eta gizarte segurantzaren alorreko eskubide eta betebeharrak guztiekin, haietan zehazten diren antzintasun eta kategorien arabera, hori guzti hori lanaldiaren iraupena edo kontratuaren izaera, gizarte segurantzaren erregimena eta dauden egoera edozein dela ere, baina une honetan esleipendun den enpresan aplikagarriak liratekeen lan eta ekonomia baldintzak eta hitzarmen kolektiboa errespetatzeko obligazioarekin.

Betebeharrak hori ezartzeak ez du inolaz ere esan nahi enpresa esleipendunak kontrataturiko langileen eta ZAISAren artean inolako lan loturarik sortzen edo onartzen denik.

Plegu honen IV. Eranskinean jaso dira langileen zerrenda eta haien egungo kontratuen baldintzak.

XXI.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK:

XXI.1.- Arau-hausteak:

Esleipendunak lanak gauzatzeko egin ditzakeen arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izango dira.

a) Oso arau-hauste larritzat joko dira honako hauek:

- Plegu honetan zehaztutako edozein baldintza edo obligazio ez betetzea, hortik etor litezkeen ekintzei kalterik egin gabe.
- Lanak nabarmen gaizki egitea.
- Zerbitzua ematen ez hastea edo zerbitzua eman gabe uztea, ezinbestek bultzatutako arazoak daudenean izan ezik.
- Prestazioa zaintzeaz arduratzen den ZAISAko Zuzendaritzaren aginduak ez betetzea, lanak burutzeari eta, oro har, horien betetzea arautzen duten araei dagokienean.
- Kontratutako langileek istiluak izatea zerbitzuaren hartzaileekin, bai harrera egokia ez emateagatik, bai lana egoki ez betetzeagatik.
- Instalazioei, prozedurei, gorabeherei eta, oro har, ZAISAren know-how delakoarekin lotutako edozein alderdiri buruzko datuen berri ematea.
- Nola ZAISAko langileek hala erabiltzaileek eta, oro har, harekin loturiko edozein pertsonak ezagutu litzakeen datuen berri ematea.
- Bi edo arau-hauste larri gehiago egitea.

b) Arau-hauste larritzat joko dira honako hauek:

- Lanetan modu ez sistematikoan berandu ibiltzea.
- ZAISAko eskura jarritako baliabide materialak eta azpiegitura modu okerrean erabiltzea.
- Kontratazioarako Organoak edo ZAISAren Zuzendaritzak egin beharreko kontrol- eta ikuskaritza-lanak eragozteak.
- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.



- c) Arau-hauste arintzat joko dira aurreko ataletan jaso ez diren gainerako arau-hausteak, baldin eta Plegu honetan ezarritako baldintzetan ondorio badute, baina zerbitzuaren prestazioari kalte larrikerik egiten ez badiote.

XXI.2.- Zigorrak:

Plegu honetako karatulako "L" atalean zehaztutakoak dira.

XXII.- KONTRATUAREN IRAUNGITZEA ETA AMAIERA.

XXII.1.- Kontratua amaitu egingo da iraungitzen denean edo behar baino lehenago amaitzen denean.

XXII.2.-. Bertan behera uzteko arrazoiak:

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak izango dira SPKLaren 223. artikuluan aurreikusitakoak eta bereziki Lege horretan bertan zerbitzuak kontratatzeari buruzko 308. artikuluan jasotakoak. Zehazki honako hauek:

- Kontratuaren xede diren zerbitzuak osorik edo partzialki lagatzea, azpierzentatzea edo eskualdatzea ZAISAk aldeztu berriak eta idatziz baimendu gabe.
- Zehaztutako epean zerbitzua eman ez hastea edo zerbitzua eman gabe uztea, ezinbestek bultzatutako arrazoiak daudenean izan ezik.
- Lan araudiaren esparruko arautegiak ez betetzea.
- Izaera sozialeko gastuak eta dagozkion zergak ordainduta ez edukitzea.

XXIII.- ERREKURTSOEN ERREGIMENA.

Nahi izanez gero, Sektore Publikoaren Kontratuen Lege Bateratuaren 40. artikuluan araututako kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik, lizitazio iragarkien, kontratazio hau arautzen duten plegu eta kontratu dokumentuen aurrean, baita esleipen erabakiaren eta prozedura horretan erabilitako tramite ekintzen aurrean ere, baldin eta azken hauek zuzenean ala zeharka erabakitzen badute esleipenaren inguruan, prozedura jarraitzeko ezintasuna ezartzen badute edo legezko eskubide edo interesen aurrean babes eza edo kaltea eragiten badute.

Aurreko paragrafoan adierazitako ekintza horietakoren baten aurka errekurtsu berezia aurkezteko asmoa duen orok, aldeztu berriak idatziz iragarri behar du, errekurtsuak gai izango duen prozeduraren ekintza zein den zehaztuta.

Errekurtsu hori hamabost laneguneko epean aurkeztuko da, inpugnaturiko ekintzaren jakinarazpena bidaltzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.



Hala eta guztiz ere:

- Errekurso bat pleguen eta gainerako kontratu dokumentuen edukiaren aurka aurkezten bada, horiek jaso diren edo lizitazaileen edo hautagaien eskura jarri diren egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen epea.
- Esleipen prozeduran erabilitako tramite ekintzen aurka aurkezten bada, arau-haustea izan daitekeenaren berri izan den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen epea.
- Lizitazio iragarkiaren aurka aurkezten bada, argitaratu zen egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen epea.

Errekursoaren idatzia nahitaez aurkeztuko da ZAISAren bulegoetan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Errekursoak aztertzeko Administrazio organoaren aurrean.

XXIV.- JURISDIZKIO ESKUDUNA:

Jurisdikzio organo zibila izango da eskuduna aldean artean sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko, kontratua prestatzeko eta esleitzeko gaietan eta kontratuaren ondorio, betetze eta amaitzeari buruzko gaietan

Auziren bat gertatuz gero, alde biek beren egoitzei edo helbideei espresuki uko eginez, Gipuzkoako Auzitegien jurisdikziopean geratuko dira.



I. ERANSKINA.- ADIERAZPEN ARDURATSUA

“.....
Jaunak/andreak, NAN:, hiria: helbidea:
..... posta elektronikoa: telefono zk:
.....eta faxa:, bere izenean edo-ren
izenean, N.A.N. edo I.F.K. ezagutu du ZAISA I eta ZAISA III eremuetan
kokatutako kamioientzako aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzuak kontratatzekeo prozedura
arautuko duen Plegua.

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

I.- Lizitatzailleak edo enpresa lizitatzailleak gaitasun juridikoa eta aski baliabide dituela kontratuaren helburua betetzeko.

II.- Ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 60. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun edo debeku kasuetako bakar batean ere sartuta.

III.- Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak betetzeko kontuetan egunean dagoela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko konpromisoa bere egiten duela, horrelakorik eskatzen bazaio.

..... 2014ko(a)k

Sin.: Lizitatzaillea



II. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... Jaunak/andreak, NAN:
....., hiria: helbidea:, bere izenean edo
.....enpresaren izenean, hiria: helbidea:, telefono
zk:eta I.F.K.

ADIERAZTEN DUT

ZAISAREN Kontratzailearen Profilean argitaratutako iragarkiaren berri badudala, hau da, ZAISA I eta ZAISA III eremuetan dauden kamioientzako aparkalekuak kontrolatzeko zerbitzua emateko eskaintzen jendaurreko eskaera egiten duen elkarte honek argitaratutako iragarkiaren jakinaren gainean nagoela.

Era berean, ezagutzen ditudala kontratua arautuko duten Klausula Ekonomiko eta Administratiboak, Zehaztapen Teknikoak eta gainerako dokumentu guztiak, eta denak beren osotasunean onartzen ditudala eta egiten ditudala espresuki neure.

Era berean, ongi ezagutzen ditudala Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguko I. klausulak aipatzen dituen legezko eta arauzko testuak oro.

Neuk ordezkatzeko dudako enpresak indarrean dauden baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela berau irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko.

Arestian adierazitako kontratuaren arabeko prestazioak adierazitako dokumentazioaren arabera eskainiko ditudala, bereziki Zehaztapen Teknikoetan eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan xedaturikoari jarraiki, jarraian adierazten diren kopuruaren ordainetan (kontzeptu guztiak, gastuak, zergak, tasak eta edozein zerga esparruko petxak), BEZa kanpora utzita.

Kontzeptua	Prezioa BEZ gabe	% BEZa	BEZa
Eguneko lan ordua.			
Gaueko lan ordua			
Eguneko lan ordua asteburu eta jai egunetan			
Gaueko lan ordua asteburu eta jai egunetan			

..... 2014ko(a)k

Sin.: Lizitzailea



III. ERANSKINA.- ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

I.- KONTRATUAREN XEDEA:

Kontratu honen xedea da ZAISA I eta ZAISA III eremuetan dauden kamioientzako aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzuak betetzea.

II.- ZERBITZUAREN ZERRENDA:

ZAISA I eremuko aparkalekua zaindu eta kontrolatzea; kamioiak abonatu erregimenean eta txandaka aparkatzeko 100 plaza ditu. Eta ZAISA III eremuko aparkalekua zaindu eta kontrolatzea; kamioiak abonatu erregimenean eta txandaka aparkatzeko 275 plaza ditu.

III.- ZERBITZUAREN URTEKO ORDU KOPURUA, BATAZ BESTE:

Aparkaleku bakoitzeko kontrolatzaile bat, egunean 24 ordu eta urteko 365 egunetan.

IV.- ZERBITZUAREN ZEREGINAK:

Egin beharreko zereginak ondorengoak izango dira: bi aparkalekuetara sartzeko kontrola, abonatuaren altak eta bajak, aparkalekuen txukuntasuna eta garbitasuna zaintzea, berori antolatzea, aparkalekua kobratzea errotazio erregimenean, eta pertsonen sarrera kontrolatzea. Era berean, eta eguneko lanek ahalbidetzen dutenean, lanean dagoenak errondak egin beharko ditu aparkalekuetatik arrisku egoerak, matxurak edo kamioi eta/edo oinezkoen artean gerta daitezkeen gorabeherak hautemateko.

V.- BETE BEHARREKO ZERBITZUAK ZEHAZTEKO ERREGIMENA:

Bete beharreko zerbitzuen zerrenda hasiera batez eta modu orientagarrian ezartzen da eta gora nahiz behera aldatu ahal izango da zerbitzu berriak sartu, dauden batzuk kendu edo aldatzeko aukera dagoelako: hori guztia ZAISAk esleipendunari formalki jakinarazita eta eskaintako prezio/orduen arabera ordainduta.

Zerbitzuari esleitutako langilea sarbideak kontrolpean edukitzeko zerbitzu-enpresako profesionala izango da, behar bezala unformatuta egongo da eta ahalmen fisiko eta psikikoa nahikoa izango du eman beharreko zerbitzuaren gorabeheretara egokitzeko.

ZAISAk edozein unetan eta zerbitzua betetzen arin diren bitartean, esleipendunaren enpleguak errefusatu ahal izango ditu exijitzen diren baldintzak betetzen ez dituztela uste badu.



IV. ERANSKINA.- ZAISA I ETA III EREMUETAKO APARKALEKUETARA SARTZEKO KONTROL ZERBITZUA EMATEKO EGUNGO LANGILEAK

Lekuz aldatuko diren langileen zerrendari buruzko informazio osoa, Zerbitzua eskaintzen duen egungo enpresa esleipendunak emandako zerrendarekin, langileen kategoria eta antzinasunekin, 2014ko azaroaren 4ko datarekin.

LANGILE KOP.: --

HITZARMEN KOLEKTIBOA: Zerbitzua emango duten langileak enpresaren HITZARMEN KOLEKTIBOA dute une honetan.

LANGILEEN ZERRENDA:

langilea	Antzinasuna	Kategoria	Kontratu mota	Hileroko gehigarria
FMGD	29/11/2000	Zerbitzu Laguntzailea	401	330.26.-€
VRPR	01/10/2002	Zerbitzu Laguntzailea	401	331.80.-€
ENG	01/06/2012	Zerbitzu Laguntzailea	189	
CMC	01/03/2013	Zerbitzu Laguntzailea	401	
JMFD	14/12/2007	Zerbitzu Laguntzailea	189	99.00.-€
EMIV	11/04/2006	Zerbitzu Laguntzailea	100	30.34.-€
MMPT	09/12/2009	Zerbitzu Laguntzailea	100	30.34.-€
JNU	06/11/2003	Zerbitzu Laguntzailea	401	331.80.-€
GCG	26/06/2014	Zerbitzu Laguntzailea	410	
RRL	24/12/1997	Zerbitzu Laguntzailea	540	49,31.-€
RGG	28/04/2006	Zerbitzu Laguntzailea	100	299.40.-€



V. ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN ZERGA ADIERAZPENAREN EREDUA

Jaunak/Andreak

NAN:

Enpresaren ordezkaria: -----

IFK:

Bulegoak (helbidea)

Bere erantzukizunpean adierazten du:

Tokiko zerga ordainketen esparruan aplikagarri den eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eta zehazki Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen araudiaren arabera, nahitaez aurkeztu behar du zerga horren matrikulan altan dagoela egiaztatzen duen adierazpena ondoko epigrafe hauetan, eta ez duela baja eman adierazitako datan.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Tokia, data eta sinadura

..... 2014ko(a)k

SINATUA